

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

2021eko ekainaren 30eko Kudeaketako Zuzendaritzaren Ebazpenean ezarritako epea aldatzea gaur egun lan-poltsetan daudenen lehentasunak aldatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltzak kudeatzeko araudia onartu zuen maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera, aldi baterako zerbitzuak ematekoa

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzaren 2021eko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez, urriaren 4tik 14ra bitarteko luzatu beharreko epea ezarri zen, 80/2021 Foru Aginduaren 3.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek parte hartzeko lehentasunak alda zitzaten GOFeren enplegu-atariaren bidez.

Eskakizun informatikoak eta sistemen mantentze-lanek bat egiten dutenez, lehentasunak aldatzeko data gisa urriaren 14tik 25era bitarteko epea ezarri behar da.

Nolanahi ere, lehentasun-aldaketen ondorioen data maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera mantentzen da, eta data hori azaroaren 1a da.

Aurretiaz adierazitakoa kontuan izanda, eta baita apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluko 25/2012 Foru Dekretuaren 12. artikulua aurreikusitakoaren arabera ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duena, eta ekainaren 20ko 21/1988 Foru Aginduaren 7. artikulua erekin erlazionatuta dagoena, zeinaren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoa sortu zen, GOFeren Kudeaketako Zuzendaritzak,

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Ezarritako epea aldatzea Kudeaketako Zuzendaritzaren 2021eko ekainaren 30eko Ebazpenean lan-poltsetan daudenen lehentasunak aldatzeko, hain zuzen ere: urriaren 14tik 25era, biak barne.

Bigarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko auzi errekurtsuotarako Epaitegiaren aurrean, edo, bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erakundearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua erekin loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 30a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS